



## Andoaingo Udalak dagoeneko 2.279 dei egin dizkie 65 urtetik gorako pertsonei

### Desgaitasun-txartelaren titularrei deitzen hasiko gara bihartik aurrera

Larrialdi-egoera ezarri zen momentutik, Andoaingo Udalaren lehentasunetako bat izan da egoera ahulean edo zaurgarrian dauden pertsonei hurbileko arreta eman eta eurekin harreman zuzena izatea, zer moduz dauden jakiteko eta oinarritzko beharrak beteta ote zituzten egiaztatzeko.

Horretarako, azken asteetan, Gizarte Zerbitzuen Saila Ataria eta Idazkaritzako langileekin indartu ondoren, 2.279 dei egin zaizkie Andoaingo 65 urtetik gorako pertsonei. Dei horiek hiru fasetan egin dira:

- 75 urtetik gorakoak: 968 dei egin dira.
- 70 eta 75 urte bitartekoak: 689 dei egin dira.
- 65 eta 70 urte bitartekoak: 622 dei egin dira.

Dei horien ondorioz, Gurutze Gorriaren eta boluntarioen taldearen laguntzarekin, **29 familia andoaindar** artatu dira eta hainbat zerbitzu eman zaizkie: 29 elikadurakoak, 19 farmaziakoak, 1 bankuarekin egindako kudeaketa eta 1 zaborra jaistea. Beste 9 familia andoaindarrek Gurutze Gorriaren telefonora deitu dute zuzenean eta haien beharrei ere erantzuna eman zaie.

Gainera, supermerkatu kate batzuk Gurutze Gorriarekin harremanetan jarri dira, janari soberakina eskaintzeko. Ekarpen horiei esker, Gizarte Zerbitzuetako Sailarekin eta Caritasekin koordinatuta, **56 familiaren beharrak bete dira**. Udala Caritasekin ere ari da elikagaien banaketa koordinatzen, Gurutze Gorriaren eta boluntario taldearen laguntzarekin.

Gobernu Taldeak eskerrak eman nahi dizkiegu Gurutze Gorriari, boluntarioen taldeari eta Caritasi bizitzen ari garen egun zail hauetan egiten ari diren lanagatik eta Udalarekin izaten ari diren lankidetzagatik.

Azkenik, jakinarazten dugu, bihartik aurrera desgaitasun-txartelaren titularrei dei egingo zaiela Udaletik, hauei ere zuzeneko eta gertuko tratua emateko helburu berarekin. Izan ere, desgaitasun-txartelaren titularrek osatzen duten kolektiboa ere zaurgarritasun-egoeran egon baitaiteke nozitzen ari garen une latz hauetan.



## El Ayuntamiento de Andoain ha realizado ya 2.279 llamadas a personas mayores de 65 años

### ***A partir de mañana, se va a empezar a llamar a las personas titulares de la tarjeta de discapacidad***

Desde que se decretó el estado de alarma, una de las prioridades del Ayuntamiento de Andoain ha sido mantener una atención cercana y un contacto directo con las personas que se encuentran en situación de vulnerabilidad, para conocer qué tal se encuentran y confirmar si tenían las necesidades básicas cubiertas.

Para ello, en las últimas semanas y tras reforzar el Departamento de Servicios Sociales, con personal de Ataria y de Secretaría, se han realizado 2.279 llamadas a las personas mayores de 65 años de Andoain. Dichas llamadas se han realizado en tres fases:

- Mayores de 75 años: se han realizado 968 llamadas.
- Entre 70 y 75 años: se han realizado 689 llamadas.
- Entre 65 y 70 años: se han realizado 622 llamadas.

Fruto de estas llamadas y con la colaboración de Cruz Roja y el grupo de personas voluntarias se ha atendido a **29 familias andoaindarras** y se han realizado diferentes servicios: 29 de alimentación, 19 de farmacia, 1 gestión con el banco y 1 bajar la basura. También se han atendido las necesidades de otras 9 familias andoaindarras que han llamado directamente al teléfono de Cruz Roja.

Además, varias cadenas de supermercados han contactado con Cruz Roja, para ofrecerles excedente de comida. Gracias a dichas aportaciones y en coordinación con el Departamento de Servicios Sociales y Caritas, **han sido cubiertas las necesidades de 56 familias**. El Ayuntamiento también está coordinando con Caritas la entrega de alimentos, con la colaboración de Cruz Roja y el grupo de personas voluntarias.

Desde el Equipo de Gobierno, nos gustaría agradecer a Cruz Roja, al grupo de personas voluntarias y a Caritas su labor y colaboración con el Ayuntamiento, en estos días tan difíciles que nos están tocando vivir.

Por último, queremos informar que, a partir de mañana, desde el Ayuntamiento y con el mismo objetivo de mantener un trato directo y cercano, se va a llamar a las personas titulares de la tarjeta de discapacidad, otro colectivo que puede encontrarse en situación de vulnerabilidad en esta dura situación en la que nos encontramos.